

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

AMURRIOKO UDALA

Hasierako onarpena ematea 2016ko aurrekontuari

Nik, Josune Irabien Marigortak, Amurrioko Udaleko alkateak, honako hau

Jakinarazten dut:

Amurrioko udalbatzak, 2016ko apirilaren 27ko osoko bilkuran, behin-behineko onarpena eman zion 2016ko aurrekontu orokorrari (15160C1111 espedientea). Otsailaren 9ko 3/2004 Foru Arauaren, Arabako Lurralde Historikoko toki erakundeen aurrekontuei buruzkoaren, 15.1 artikuluan xedatutakoa betez, agiri hori hamabost egun baliodunez jarriko da jendaurrean kontuhartzailletzan, iragarki hau ALHAOn argitaratzen denetik aurrera, interesdunek aztertu eta egoki deritzeten erreklamazioak aurkez diezazkieten udalbatzari, aipatutako foru arauaren 17. artikuluan xedatutako eran.

Adierazitako epean erreklamaziorik aurkezten ez bada, aurrekontua behin betiko onartutzat joko da, halaxe xedatzen baitu lehenago aipatutako foru arauak 15.1 artikuluan.

Erreklamazioak aurkezten badira, Udalbatzak hilabete izango du erreklamazio horiek ebazteko, jendaurreko erakustaldia bukatu eta hurrengo egunetik aurrera.

Aurrekontua behin betiko onartzeko egintzan erreklamazioak ebazten ez badira, ez direla onartu esan nahiko du.

Amurrio, 2016ko apirilaren 29a

Alkatea

JOSUNE IRABIEN MARIGORTA